

## **1) BALOREZKO PROPOSAMENAK**

Gaur egungo arazorik larrienetako bat klima da, gure enpresak egiten edo konpontzen duena, etxeko lanak edo makinak, hala nola; izozkailua, hozkailua, erraztatzea... Gainera kirola egiten dugun bitartean, arropa garbitzeko kapazak izango ginateke eta egiten dugun kirol kantitatearen heinean garbituko da arropa gehiago edo gutxiago. Honi esker, erabat erraztu egiten dira etxeko lanak, makinaren bidez eta aldi berean klima aldaketari lagundu, kutsatu gabe. Honek daukan alde onetako bat, etxeko lanak egiten ditugun bitartean, kirola egiten dugula da eta guztiz segurua eta efizienteak diren makinak direla gainera. Honen helburua, denborarekiko arazoak saihestea da, eta honen bidez gauza gehiago egiteko gai izatea.

Bezeroekin negoziatzeak eta akordio batera ailegatu ondoren, haiek gure etxetresna modernoak eta berriak eros ditzatela konbentzitzeak bereizten gaitu. Bezeroak gehienetan zerbitzu ona bilatzen doazenez, gurekin oso eroso aurkituko dira eta gainera, dagoeneko saltzen ditugun produktuen eredu bat ikusteko aukera izango lukete. Haien gustuko produktua bada, aste oso batean zehar izango lukete aukera produktua haien etxeetan frogatzeko eta nola funtzionatzen duen ikusteko eta arazoak agertuz gero, hauek murrizteko. Gehiago dena, haien gustukoa izango balitz eta produktuarekin geratzea erabakiko balute, haien lehenengo erosketa izateagatik % 50-eko deskontua izango lukete. Halere, ez bada haien gustukoa, beste enpresa askok ez bezala, beste bat aukeratzeko aukera emango genieke, betiere apurtuta bueltatzen ez badute. Izan ere, zerbitzuarekin arazoak badituzte, hau da, apurtuta ailegatzeko bazeaie eta ez badira konturatzen denbora luze batean, arazorik gabe beste bat hartzeko eskubidea emango genieke.

Hortaz aparte ez dira etxetresna arruntak, bereziak baizik, beti ez kutsatzeari begira sortuta daudelako. Eta hauen funtzionamenduari begira, oso erraza da ulertzeko, aditu baten laguntza jaso barik.